



3. Sentsoreak

Lerro jarraitzailea eta ultrasoinuen sentsoreak muntatu. Lerro jarraitzaile sentsorea jartzean, plastikozko aurreko gupila ere txertatuko dugu. Bide batez, 4 torloju handienak zutabe gisa ezarri eta sentsoreen kableak konektatu. Guzti hau egiteko bihurkineko puntaren posizioa aldatu beharko dugu Allen punta erabiltzeko.



4. Bateria eta plaka nagusia

Bateria bere kaxan sartzean kontu handia izan kableak dagokion zulotik ateratzen. Ondoren plaka nagusiaren beheko partean txertatu.




Bateria plakan jarri ondoren, plaka nagusia zutabe modura jarri ditugun lau torlojuen gainean jarri eta beste lau torloju txiki erabiliz lotu egingo dugu.

5. Kableatua

Irudiari arretaz begiratu kableatu guztia modu egokian jartzeko.

Wiring Instructions




- Ezker motorra M1 konektorean.
- Eskuin motorra M2 konektorean.
- Marrak jarraitzeko sentsorea (line folower sensor), RJ25eko 2. portuan (Ezker).
- Ultrasoinuen sentsorea (Ultrasonic sensor), RJ25eko 3. portuan (Eskuin).
- Bateria atzeko konektorean ezarri. Zuloa txikia da eta bihurkina erabil dezakegu konektorea barruraino bultzatzeko.

Gida osoa

Gida osoa deskargatzeko [hemen](#) klik egin dezakezu.

LED matrizea

Gehigarri modura, LED matrizea ere txertatu dezakegu.



Zinta marroia kendu du eta irudian ikusten den modura pieza guztian lotu.